

# HEGOALDE INDUSTRIAGUNEAREN BERRINDUSTRIALIZAZIOA

2019 . 06 . 25

Ikaslea: Julen Arregi Aizpurua / Irakaslea: Iñaki Begiristain Mitxelena

## [+] AZTERKETA [+]

### EGUNGO EGOERA

|INDUSTRIA EREDU HORIZONTALA|

- I -

Egun arte ezaguturiko produkzio espazioak norabide horizontalean eraiki dira, honek prozesua era produktiboago batean garatzea eragin baitu. Gure inguruak eskaintzen digun topografiaren kontra joateaz gain, aro garaikideak pairatzen duen gabezia larrienetakoa da lurzoru eskasiarena; gauzak horrela, bestelako eredu baten beharra ageri da.



|INDUSTRIA HERRITIK URRUNDU|

- II -

Produkzio industrialeko eremu gehienak gune erresidentzialetatik aldendu egin dira egungo industria-ereduan eta hauekin batera osagarriak diren hainbat jarduera ekonomiko, hala nola, komertzio edota hostalaritza enpresak. Bizilagunentzako deserosoak izan daitezkeen jarduerez gain, prozesu kutsakorrek distantzia handiak markatu dituzte biziguneekiko eta ondorioz, "lotarako auzoak" sortzearen arriskua oso agerikoa da.



|LURZORU OKUPAZIO HANDIA|

- III -

Industria-eredu horizontalari jarraiki, asko dira mendi-magaletan kokatu izan diren industriaguneak produkziorako eremuen eskasia dela eta. Honen eraginez, urbanizazio-kostuak gora egiten du industria hauen eraikitze-prozesuan eta gainontzeko aspektuak merketzeko asmoz, elementu hauen eraikigarritasuna solairu bakarrera mugatzea izaten da erabakirik ohikoena.



|INDUSTRIEN ARTEKO LEHIA|

- IV -

Azken urteetan gure gizarteak pairatutako depresio ekonomikoak ondorio latzak utzi ditu bigarren sektorean, eta batez ere produkzioaren alorrean. Gauzak horrela, industria txikien zailtasunak areagotu baino ez dira egin krisi garaitik, eta industria hedatuekin leihatzeko dituzten tresnak oso urriak dira gaur egun, askok jarduaera produktiboa itxi egin behar izan dutelarik.





|INDUSTRIA EREDU ITXIA|

- V -

Orain arteko eraikin industrialek erabilera bakarreko eredu itxia jarraitzen dute, inguratzen dituen testuinguruarekin inolako elkarrizketarik ez bait dute sortzen. Barrurantz begiratzen duten eraikuntzetaz ari gara eta honek, barne-produkziora bideratutako erabilera indartzen du. Azken finean, kanpo-kontestuarekin zerikusirik ez duen giro produktiboa eratzea izan da orainarteko tonika nagusia.



### ARAZOAK

|LURZORUAREN GEHIEGIZKO OKUPAZIOA|

- I -

Eukal Herria bezalako guneetan, non orografia malkartsua den nagusi, lurzoru eraikigarria ez da ugaria eta biztanleria dentsitate altuko gunea dela kontutan izanik, bizitegi erabilerara bideratzen da azalera horren zatirik handiena. Hori kontuan izanik, jarduera ekonomikora bideratutako lurzoru eraikigarria ondasun oso urria da eta industria ereduak etekin gutxi ateratzen diola hautematen da. Honek eragin negatibo zuzena du paisaian, normalean hartzen duten hedadura handiagatik.



|HIRIA ERABILERETAN BANATU|

- II -

Egungo plangintza autonomikoak ez du laguntzen bestelako industria-eredu baten garapenean. E.A.E-ko hirigintza-eredua zurrunegia suertatzen da eta era bortitzegian ezberdintzen ditu eremu erresidentzialak industria-auzoetatik. Erabileren zonifikazio zorrotzak aurretiaz aipaturiko "lotarako auzoen" bezalako patologiak sustatu egiten ditu, funztionalitate ezberdinen arteko mugak lausotu beharrean.



|INDUSTRIAREN BEHERAKADA|

- III -

Egun arte eraikitako eredu industriala bazterturik, produkzio industriala bera arriskuan dagoen jarduera ekonomikoa da. Azken garaietan jasandako beherakada oso nabarmena izan da eta enpresa industrial askoren desagertzea eragin du; honen ondorioz, sektoreko langile askoren kaleratzeak edota baldintzen urritzea gertatu dira.



|INDUSTRIEN BERRIKUNTZA FALTA|

- IV -

Aurretiaz aipaturiko beherakadaren aurrean, biziraun duten industria txiki askok ez dute erakutsi berrikutzarako gaitasunik. Produkzio ahalmena gutxiagotzearen aurrean, produktuen berpentsaketa edota ideien berplanteaketa bezalako iraultzak ez dira eman. Honek, dimentsio handiagodun industrien aurrean leihatzeko ahalmen gabe utzi ditu, asko desagertzera kondenatuta ageri direlarik.



|INDUSTRIA HUTSAK HERRIGUNEETAN|

- V -

Sektore industrialaren beherakadak, hainbat eraikinen hustuketa utzi du gure herri ta hirietan. Euskal industriak izandako indarraren erakusle diren eraikuntzetaz ari gara, hauetariko asko berrikuntzaren buru izan direlarik arlo arkitektonikoan. Gure memoriaren eta historiaren eredu fisikoa izateagatik, balioan jarri beharreko elementutzat joko dira.



### KONPONBIDEA

|PRODUKZIO EREDU BERTIKALA|

- I -

Eremu erresidentzialetan hartutako estrategia egokitzat jota, lurzoru industrialetako eraikigarritasuna ere dentsitate altuetara bideratuz gero, azaldutako hainbat arazori konponbidea emateko era bat ageri zaigu. Gainera, lurzoruaren eskasiari arnasgune bat eskaini eta mugikortasunaren iraunkortasuna bermatzea lor daiteke. Laburbilduz, eredu horizontaletik bertikalera iraultzea industriaren hazkundea.



|INDUSTRIA EREAIKINEN BERRERABILERA|

- II -

Egituralki egun dagoen eraikin industrialekiko ikuspegia eraldatu behar da. Hau da, gune industrialak gune kulturalki potentzial bezala baloratzen ditugun momentuan, hauen berrerabilpena sustatu eta bizitza urbanoarekin bateragarriak diren erabilerez bete ahal izango dtugu, eraikin hauen hiri-sarean integratuz. Oro har, gune industrial hutsak hiri eta herrien hazkunderako tresna bezala ikustea lortu behar da.



|HERRIA PRODUKZIO GUNE BILAKATU|

- III -

Behin industria guneen konnotazio negatiboa aldenduta, erabilera anitzerako hirian pentsatzean oinarrituko da hurrengo konponbidea. Zonifikaziotik haratago, funtzionalitate ezberdinak hiri eta udalerrietan barrena sakabanatzeak eskaini ditzakeen onurak ezagutu beharko dira, hala nola, nukleo urbanoaren konzentrazioa eta honek dakarren bizitza-maila.



|PRODUKZIO EREDU GARBIA|

- IV -

Jarduera industrialak eskaintzen dituen prozesuen artean, argi geratzen da asko ez direla bateragarriak izango bizimodu urbanoarekin. Prozesu hauen kutsakortasuna dela eta, askok izaera periferikoa mantendu beharko dute hiri-saretikaldendurik. Hala ere, lantegi eta tailer txikien arteko elkarlana sustatu nahi izango du industria-eredu berritzaileak.



|INDUSTRIA EREDU IREKIA|

- V -

Erabilera anitzak bilduko dituen eraikinak proposatuko dira: ikerkuntza guneak, informazio puntuak, aisiguneak... Barne-funtzioak uztartzeaz gain, inguruko testuingurua ere aktibatzeaz arduratuko diren elementuak proposatuko dira. Industria-eredu irekira pasatzeak, eraikin industrialak produkzio soilerako gune izatetik espazio publiko bihurtuko dituela esan nahi du.



## [+] IDEIAREN AZALPENA [+]

|EGUNGO EGOERA|

- I -

Erakusten den marrazki honen bitartez Zarauzko Hegoalde industriagunearen egungo egoera adierazi nahi izan da; non, eremua hau hiri sarearen barne geratu den industriagune bat den. Honen ondorioz, nahiz eta industriagunea egoera tamalgarri batean aurkitu, bere inguruan herri mailan garrantzitsuak diren azpiegiturez inguratua dago: Polikiroldegia, eskolak... eta beraz, aztergai dugun eremuak jende fluxu bat erakartzen du.



|PLANGINTZA I|

- II -

Zarauzko Hiri Antolamendu Plan Orokorrak, Hegoalde eremua hiri lurzoru finkatugabea bezala sailkatu zuen, etxebizitza erabilerarako hain zuzen. Egoera urbanistiko honek industriagunearen kaltetzean eragin zuzena izan du, honen ondorioz bertan aurkitzen ziren enpresa askok alde egin behar izan zuten. Gainera, gaur egun ez dago inongo plangintza xehaturik eremuan, eta hau antolamendu geroztatutako esparru bezala sailkatu zuen Plan Orokorrak.



|PLANGINTZA II|

- III -

Aipatu den bezala, eremuan bizitza auzo berri bat egitea da helburu, non tokiko historiaren adierazgarri bakarra TAF eraikin babestua soilik izango den. Kontuan edukita Salberdineko (Hegoalde auzoaren alboan kokatzen den eremua) plan berezia hasi berri dela, eta logikoa den moduan azken hau kontsolidatu arte ez dela Hegoaldeko industriagunearen birsorkuntzarekin hasiko; Hegoalde eremuaren egungo egoera 10-20 urtez luzatuko da.



|BUKAERAKO HELBURUA|

- IV -

Proposamen honek deskribatzen duen bezala, proiektuaren helburua industria herri barruan mantentzea da, bertan bizita urbanoarekin bateragarriak diren industriak txertatuz. Honen helburua auzo produktiboak sortzea da, ekonomia erresistenteak sortuz, eta honela, herri erresiliente bat sortuz. Erakusten den irudia bukaerako irudi posible bat da, izan ere, hirigintza ezberdin bat proposatzen da, denboran zehar gartzen joango dena.



|PROIEKTUAREN HELBURUA|

- V -

Proposatzen den proiektuaren helburua pixkanaka auzoaren egoera hobetzen jutea da, eta aldi berean, pixkanaka auzo produktibo horren haziak landatzea. Gutzi hau gauzatu ahal izateko hirigintza egiteko modu berri bat erabili behar da, gaur egun esku artean ditugun hirigintza oso itxia baita. Gainera, eremua geroztatutako antolamendu esparrua izanik, bertan egin daitezkeen aktuazioak oso mugatuak eta urriak dira, eremuaren kaltetzea indartzen duten baldintzak.



## [+] KOKAPENA HEGOALDE AUZOA [+]

